


# MUSKIZ ALDIZKARIA

*/ 12. aldizkaria  
2014ko urria*



*Kobaron berriz  
urbanizatu da,  
auzotarren  
iradokizunak  
aintzat hartuta*

*/3. orria*

*33 kultura eta  
kirol elkartek  
jaso dituzte  
laguntzak*

*/2. orria*

*190.000 euro,  
auzoetara  
iristeko sarbideak  
hobetzeko*

*/4. orria*

*Merkataritza-  
arloan osasuna  
sustatuz*

*/5. orria*

*Arraintxori  
Taldea, oso  
elkarte aktiboa*

*/6. orria*

## Editoriala

### Gozatu Muskizen

Iraila lan gehien izan duen hilabeteetako bat izan da Muskizen, Udal Kultura Saileko arduradunentzat, funtzionario ugarirentzat, eta babes zibileko elkarteko eta beste hainbat elkartetako kideentzat, udalerrian egin diren ekitaldi guztiak direla eta. Ekitaldi eta ikuskin horiei esker, 20.000 bisitari inguru iritsi dira gure udalerrira, haietako asko antolatutako ekitaldien ospeak eta aniztasunak erakarrirako atzerritarrak.

Lehenengo asteburuan Txakurren 50. Erakusketa Nazionala eta Nazioarteko 49. Erakusketa egin ziren, Bizkaiko Txakurren Elkartek antolatuta; hilaren 14an, igandean, El Cerro kirol elkarteak antolatutako III. Mello Saria izan zen; San Juan plazan kokatu zuten bai XXXII. Nekazaritza Azoka hilaren 21ean –igandea–, bai eta Arraintxori Taldeak antolatuta hilaren 27an –larunbata– egin zen Natura, Ehiza eta Arrantza Azokaren VIII. edizioa ere. Finkatzen ari diren hitzorduak dira denak, edo dagoeneko erreferentzia bihurtu

“*Kirola, kultura eta tradizioak sustatzearekin harro gaude*”

tu dira euren sektorean. Eta hori guztia turismoaren eta kulturaren panoraman Muskiz erreferentziako herri bezala kokatu nahi duten herritarren eta udalbatzako kideen ahaleginari esker lortu da.

Ekitaldi horiek antolatzerakoan egingandako ahaleginak poz handiak ekarri dizkigu. Orain arte aipatutakoaz gain, aintzat hartzekoa da –besteak beste– Muskizko ostalari eta jatetxe-jabeek “%100 okupatuta” kartela jarri ahal izana, laguntza garrantzitsua baita hori hain erasanda dagoen herriko ekonomiarentzat. Dena dela, kontu horien guztien gainetik, berez nabarmentzen da kultura, tradizioak eta kirola bultzatzeko ardura bere gain hartu duen udalerrri bateko kide izatearen harrotasuna.

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



## Muskizko 33 elkarteak 110.000 euro jaso dituzte kulturari eta kirolari laguntzeko

**M**uskizko Udalak, elkarten egoera ekonomiko zaila eza-gututa eta haiek egiten duten lanaren garrantziaz jabetuta, kultura eta kirol elkarteak eta auzoetako jaiak antolatzeko ardura duten taldeek bultzatutako jarduerak diruz laguntzera bideratutako zenbatekoak mantentzea erabaki du. Horiek horrela, guztira 33 elkarteren artean banatu dute orotara 110.000 eurokoa den zenbatekoa.

Kulturarako laguntzak jasotzeko aukera izan duten 14 elkarten artean hainbat eratakoak zeuden: gazteen koral eta abesbatzak, txistulariak, auzokideen elkarteren bat, eskautak, motorzale lagunarte bat, eta ehiza eta arrantzako elkarte den Arraintxori Taldea. Horien guztien artean, 35.045 euro inguruko diru-kopurua banatu da azkenean. Beste alde

batetik, Rabuda, Rigada, Pobeña, Magdalena, Kobaron eta Glorietako sei elkarteek Muskizko Udalak herriko auzoetako jaiak diruz laguntzera bideratutako 18.515 euro jaso ahal izan zituzte. Laguntza eskatu duten 13 kirol kluberen artean banatu beharreko zenbatekoa 44.000 eurokoa izan da guztira.


### Eskola-materialerako laguntzak

Beste alde batetik, diru-laguntzak onetsi ditu Udalak, Muskizen erroldatuta dauden Derrigorrezko Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako eta ikastetxeetan jarduera kulturalak garatzen dituzten Ikasleen Gurasoen Elkarteentzako liburuak eta eskolako materiala erosteko. Bi diru-laguntza lerroek joan den ekitaldiko aurrekontu bera mantendu dute, 32.000 eurokoa, hain zuzen ere.

## Gozatu Parkean ekimenaren beste edizio bat

Haurrek Muskizko parkeetan malabarismo, gorputz-adierazpen, pintura edo zirku tailerrak aire zabalean goza ditzaten Udalak abiarazi duen ekimena da Gozatu Parkean. Gaur egungo udalbatzak apustua egin nahi du gune publiko horiek berreskuratzeko, 400.000 euro inbertituz zaharberri eta berrizatzeko, umek aisialdiko eskaintza didaktiko zabala eskura izan dezaten. Honako bigarren edizio honetan, jarduerak antolatu dira El Cruceron, Kobaronen, Meatzari plazan, San Juaneko parkean eta Errota Zaharren dauden umeentzako guneetan.





## ***Kobarongo hiri-erdigunea espazio publiko bezala berreskuratzea***

***Udaleko arduradunek auzoko biztanleen iradokizunak txertatu dituzte proiektuan***

**B**erriz urbanizatzeko proiektu honen helburua Kobarongo hiri-erdiguneko bi eremu nagusiak elkarri lotzea da, parkea eta elizako plaza, alegia, proiektua gauzatuakoa inguruak orain duen natura izaera galdu gabe. Bertara iristeko, erreka zeharkatuko duen pasabide bat erabiliko da, eta, dagoeneko parkean dagoen espaloia luzatuz, bi eremuak elkartuta geldituko dira gune berde baten bitartez. 650.000 euro inguruko aurrekontuarekin, jardue- ra horretan aurreikusita dago gaur egun

dauden sarbideak, argiak, gune berdeak, euri-urak jasotzeko baliabideak eta oinezkoentzako ibilbideak hobetzea.

Udalerriko auzoetako azpiegiturak hobetzeko jardueren baitan sartuta dagoen ekimen honetan, kontuan hartu dira bertako auzotarren iradokizunak eta eskaerak. Udaleko arduradunek bilerak egin dituzte haiekin, eta iradokizunak eta eskaerak jasota gelditu dira gauzatu den proiektuan.



## ***Forlan Toki Garapenerako Agentziaren XXV. urteurrena***

***25 urteko historian, 1.700 lan-kontratu inguru lortu dira guztira***

Forlan Toki Garapenerako Agentziak aldizkari bat argitaratuz ospatu du bere XXV. urteurrena, bere historian zehar sustatu dituen jardueren balantzea jaso, bai kontrataziorako laguntza zuzenen arloan, baita laneko prestakuntza edota orientazioko arloetan ere. 1989ko urrian erakunde autonomo hori osatu zenetik, 1.700 lan-kontratu inguru egin dira guztira, batez besteko biztanleria 7.000 lagunekoa den udalerrian.

Erakunde horren ekimenari esker lana aurkitu duten langabeen kopuru osoa 1.037 lagunekoa da guztira. Forlanen ibilbideko lehenengo urteetan testuinguru sozio-ekonomikoa oso bestelakoa zenez, beharrezkoa izan zen pertsona bera behin baino gehiagotan kontratatzea. Gaur egun, kontratazioen arduradunek euren buruei ezarritako helburua da lanik gabeko pertsona desberdinak hautatzea lanpostuak betetzeko.

Hasiera batean Enkarterriko eta meatzaldeko udalerriei zerbitzua emateko eratu bazen ere, 2008. urtetik aurrera Forlanek beren-beregi lan egiten du Muskizerako.

## ***Estalki bat instalatu da Cantarrana Hiko jolastokian***

Cantarrana herri ikastetxean, hemendik aurrera 540 metro koadroko jolastoki estalia daukate, eguraldi txarra denean eskola-umeak bertan babes daitezzen. Zimenduak jarri eta karpa bat instalatzera bideratutako 80.000 euro inguruko inbertsioarekin, olanazko estalkiari eusten dion aluminio-aleaziozko egitura eraiki da. PVCarekin berrestalitako erresistentzia handiko poliester ehunez egindako egitura da. Lan hori gauzatu, Udalak erantzuna eman dio ikastetxe horretako Ikasleen Gurasoen elkarteek egindako eskaerei.



## Udalak 190.000 euro inbertitu ditu auzoetara iristeko bideak hobetzeko



**San Julian, Rabuda eta Llanas auzoak.** Guztira 55.000 euroko zenbatekoarekin, Muskizko auzo horietan aparkaleku eta errepide batzuetan zoladura berritzeko lanak egingo dira lehenengo. Udaleko arduradunen iritziz, premia egin beharreko lanak dira, denbora aurrera joan ahala nabarmen hondatu baitira bideak.



**Txikita bidetik Kobaronera.** Zoladura eta euri-uretarako ubideak hobetzeko eta berritzeko lanak egingo dira Rigada eta Kobaron auzoen artean dagoen sarbidean. Gainera, bide hori zenbait abelazkuntza-ustiategitako larre-sailetara igarotzeko erabiltzen da. Lizitazioaren zenbatekoa 76.000 euro ingurukoa da guztira, eta lanak 2014ko azken hiruhilekoan egitea aurreikusita dago.



**Janeo bidea.** Bide honetako hormigoizko zoladura berritzeko eta euri-urak biltzen dituzten ubideak hobetzeko lanen lizitazioaren prezioa 74.000 eurokoa da guztira. Bidea gehien erabiltzen dutenak inguruan bizi diren herritarrak, hortik hurbil ustiategiak dituzten abeltzainak eta Ramos eta Janeo tontorretara irteerak antolatzen dituzten mendizaleak dira.

## Omenaldi hunkigarria Carmen Rastrojori, ehun urte betetzean

Joan den uztailaren 24an, Muskizko Gizarte Ekintza Sailak eta Eguneko Zentroak omenaldi hunkigarria egin zioten zerbitzu horren erabiltzailea den Carmen Rastrojo Delgadoi, ehun urte bete dituean. Oso emakume langilea da, eta sarritan ikus daiteke landareak zaintzen edo eskulanak egiten. Asmakizunak gustatzen zaizkio eta itsasoan bainatzea atsegin du. Izan ere, Hondartza Bizi programari esker, urtero murgil daiteke Arena hondartzako uretan.



**Muskizko XXXII. Nekazaritza Azoka.** XXXII. Nekazaritza Azoka oso arrakastatsua izan da jende aldetik. Bertako barazteetako, abelazkuntzako eta artisautzako salgaiak eskaini dituzten 98 standek, heziera erakustaldiak, animalia exotikoen erakusketak eta lehiaketek giroa alaitu dute, txikiak zein handiak animatuta. Txakolinik onenarentzako urrezko domina J. D. Txabarririk jaso du, bere Extra ardoari esker.



## Merkataritzaren esparruan osasuna sustatzea

**E**usko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Osakidetza, eta Abanto-Zierbena, Muskiz, Ortuella, Trapagaran eta Zierbenako udalek eta merkatariek lankidetzat hartu dute Udaletxeko osoko bilkuretarako aretoan, merkataritza-arloan osasuna sustatu ahal izateko.

Desberdintasunak murriztea eta osasunaren esparruan erabakigarriak diren faktoreek duten garrantzia azpimarratzea helburutzat hartuta, osoko ikuspegia eratu nahi dute erakunde parte-hartzaileek. Ikuspegi horren ondorioz, ezinbestekoa da osasun-sistemak zeharka parte hartzea gainerako adminis-

trazioekin eta gizarte-eragileekin. Horretaz gain, herritarrek modu aktiboan hartu behar dute parte euren osasunari eta zaintzei dagokien guztian.

2014ko azkeneko hiruhilekoan zortzi tailer eta hitzaldi izango dira Trapagaranen eta Gallartan. Hitzaldien bidez helburu hauek bete nahi dira: bertaraten direnak kontzientziatzea arrisku kardio-baskularreko eragileak kontrolatzeko elikadura zuzentzeak duen garrantziaz, tresnak ematea emozioak autokontrolatzeko, trebetasun sozialak bultzatzea estresa kontrolatzeko, eta berariazko oinarrizko prestakuntza sustatzea bihotz-biriketako erreanimazioarako.



## Lehen laguntzako prestakuntza orokorra

**Udalak eta Babes Zibileko elkarteak herritarrek prestatzen dituzte, Muskiz segurua izan dadin**

Muskizko Udalak eta Babes Zibileko elkarteak prestakuntza kanpaina bat jarri dute abian herritar guztientzat, oinarrizko bizi-euskarriaren eta desfibriladore erdi-automatikoaren inguruan. Joan den irailean hasi ziren ikastaroak, eta hauei zuzenduta daude: udaleko funtzionarioei, udal zentro guztietako langileei, elkartei, ikastetxeei eta, oro har, herritar guztiei.

Datorren martxoan prestakuntza-saioak bukatu ondoren, Muskiz babes zibilaren kultura sustatzen duten Europa, Japonia eta Estatu Batuetako hirien maila berean egotea da Udalaren asmoa da, premia dagoenean trebatutako herritarrek larrialdietako zerbitzuei jakinarazteko eta inguruko laguntzako prestakuntza izateko moduan, alegia.

Gaur egun sei desfibriladore erdi-automatiko daude Muskizen, haietako bost udal instalazioetan, hala nola, Kultura Etxean, Udaletxean, Eguneko Zentroan, kiroldegian eta futbol-zelaian. Seigarren gailua eramangarria da, eta Udaltzaingoa eta larrialdietako taldeek erabiltzeko da, gehienbat.



## Igerilekuko lurzorua altxatuta, 6.000 euro aurreztuko dira urtean

Joan den abuztuan udal-igerilekuko lurzorua altxatzeko egin ziren lanei esker, 116 m<sup>3</sup> murriztu da instalazio horretako ur-bolumena. Horiek horrela, urte naturalaren bukaeran, 6.000 euro inguruko balioa duen energia aurreztuko da. Igerilekuaren sakontasuna gutxituz, egunero

ordezkatu beharreko ur-kopurua murriztu da, eta, horrekin batera, ura berotzeko gastua ere bai. Gainera, eraberritu ondoren, kiroldegiko igerilekuak baldintza egokiak ditu hidrobike eta sasoiaren egoteko gimnasia bezalako jarduerak bertan egin ahal izateko.



## Elkarrizketa



### **Muskizko Arraintxori Taldea, Euskadiko elkarte aktiboenetako bat**

Muskizko Ehiza eta Arrantza Elkarte, gaur egungo Arraintxori Taldearen eramuina izan zena, 1945. urtean jaio zen, eta urte batzuetan geldirik egon ostean, 2006. urtean berriz agertu zen bi kirol praktika horiek bultzatu nahi zituzten herriko zale batzuen lanari esker. Bertako bazkideak harro daude Euskadiko klub aktiboenetako bateko kideak direla aitortzearekin, eta, gainera, ez dute belaualdien arteko ordezkatzearazorik.

**G/ Zergatik definitzen duzue zeuen burua Euskadiko elkarte aktiboenetako bat bezala?**

*E/ Gaur egun, klubak 250 bazkide ditu, ehiza eta arrantzako zaleen artean neurri berean banatuta. Jarduera ugari antolatzen diren ardurak hartzen dugu gure gain, eta bi kirol horiek maite dituen edozeinek har dezake*

**“Irteera horien helburua ez da pieza gehien harrapatzen dituen saritzea**

*parte orokorrean. Bestek beste, urtero bi irteera prestatzen ditugu galeperretarako eta bat eperretarako, ehiza-barruti intentsibotant, eta beste hiru itsas arrantzarako.*

**G/ Zein da elkarteak antolatutako jarduerak identifikatzen dituen ezaugarria?**

*E/ Irteera horien helburua ez da pieza gehien harrapatzen dituen saritzea, baizik eta esperientziak trukatzea, ingurumena errespetatzea, eta ehiztariak eta arrantza-leak kirolari onak izan daitezen kontzientziaztea. Gure elkartearen beti egiten zaie aitortza arrakastarik izan ez eta piezarik harrapatu ez dutenei.*

**G/ Baina zuen jardueren arteko “izarra” Natura, Ehiza eta Arrantza Azoka da, ezta?**

*E/ Zalantzarik gabe, bai. Gure esku ditugu San Juan plazak eskaintzen duen kokapen*

*aparta, enpresa eta erakunde ugariaren babesa, bai eta bi kirol horiek maite dituzten kirolari ospetsuen lankidetzaren ere, antolatutako hitzaldi eta mahai-inguruetan parte hartuz. Azoka hori erreferentzia bezala finkatzen ari da Meatzaldean, Ezkerraldean eta Enkarterrin, ehiza eta arrantzarako zaletasun handia dagoen ingurua izanik.*

**G/ Arraintxori Taldearen ezaugarri nagusia oso klub kuttuna izatea da.**

*E/ Urtero senidetasuneko bazkari bat egiten dugu, eta bertan izaten dira adinagatik kirol horietan aritzerik ez duten zaleak ere, aditu eta hasiberriekin garai bateko ibilera lortuak berritzen. Gainera, klubeko kirolari edo kide bezala ibilbide luzea izanda, euren ahaleginagatik eta lankidetzagatik nabarmendu diren lagunei aitortza egiteko baliatzen dugu beti azoka.*

### **N-634ko lanak urtearen amaiera aldera buka litezke**

Muskizko Udalararen arabera, ziuurrenik, N-634ko irisgarritasun-lanak abenduaren bukaerarako buka litezke. Trafikoa gizartartzea eta oinezko eta ibilgailuen arteko harremana eraldatzea ditu helburu proiektuak. Bertan jasota dagoenez, Kultur Etxearen eta San Juan elizaren artean, 500en bat metroan espaloiak eta bideak eraldatuko dira.

Gaur egun, Udalak ordaindu du obraren zenbateko osoaren ia %40 -1.835.000 euro-, zerbitzuak bideratzeko lanen %75 eta erasandako eremuetako gainazalaren urbanizazioaren %35 egin baitira. Ertzaintzaren polizia-etxearen ondoko biribilgunea erabil daiteke dagoeneko, eta, aldi berean, langileak Kultur Etxeko bideko zoria egokitzeko eta asfaltatzeko lanetan ari dira.



### **Zahartze Aktiboaren gida argitaratu da**

Hirugarren Adinaren Egunarekin batera, Muskizko Udalak Egunko Zentroarekin batera argitaratutako Zahartze Aktiboaren gida aurkeztu da. Liburuxka Kultur Etxearen eta Egunko Zentroaren bitartez banatuko da, besteak beste. Zahartzeak berekin dakartzan ajeak arintzeko oinarritzko aholkuak biltzen ditu gidak, eta udalerrian bertan ibiltzeko eta kirola egiteko ibilbideak erakusten ditu.

